

TESTU-MOTA: Erreportajea

IKASTETXEA: Orereta Ikastola

MAILA eta GELA: DBH2D

IRAKASLEA: Sara Aramendi Moreiro

DBH2. mailan Errenteriako euskara jendeari buruzko erreportajeak egin behar izan dituzte. Horretarako haien herrian euskararekin harremana duten pertsonak elkarrizketatu dituzte eta elkarrizketetatik ateratako informazioa baliatuz idatzi dituzte testuak. Hona hemen, DBH2D gelako erreportajea, Oier Egilegor eta Martin Vallejok egina.


Errioxatik Errenteriara, euskararen zubia eraikiz

Oier Egilegor eta Martin Vallejo

Argi dago pertsona batek hizkuntza bat ikasterakoan jar ditzakeen gogoak eta ahaleginak ez dutela mugarik, are argiago, hemeretzi urterekin, 1965. urtean, Errioxatik Errenteriara bizitzera etorritako **Santiago Vallejo Jimenezi** elkarrizketa egin ondoren. Hirurogei urte Euskal Herrian pasa ondoren, gaur egun emazte euskalduna, seme euskaldunak eta biloba euskaldunak ditu, baita hizkuntza erabiltzeko gaitasuna ere.

Euskararen Bidaiaren Abiapuntua

Santiago Cervera del Rio Alhamatik dator, Errioxako udalerrri txiki batetik. Azken urteetan bertako biztanleriak behera baino ez du egin, eta desagertzeko arriskuan dago. 14 urte zituela, “**El Peluso**” ezizenaz deitzen zioten herria eta bizimodua utzi eta Durangora eta Trinxerpera lan egitera etorri zen 4 urtez, 18 urte zituen arte. Bizipen horri esker euskararen existentziaz ohartu zen: “Garai hartan ez zen euskara asko hitz egiten baina konturatu nintzen hemen ez zela gaztelaniaz soilik hitz egiten”. 19 urterekin, bere bizitza aldatuko zuen lagun baten deia jaso zuen. Santiagori Errenterian lan egitea proposatu zion,



eta bere etorkizuna erabakiko zuen ekintza izango zela jakin gabe, proposamena onartu zuen. Bere familiako inork ez zekien euskaraz, ezta Santiagok ere, baina etorkizun hobearen baten bila, **1965. urtean**, Errenteriara etorri zen.

Euskara tabernaz taberna

Normalena gaur egun euskara euskaltegietan ikastea da, edo etxean gurasoek irakastea, baina Santiagorentzat ez da horrela izan. Euskara ikasi zuen moduari buruz galdetzean, erantzun bitxia eman digu. Garai hartan ez zegoen euskaltegirik Errenterian, eta euskara ikastea gaur egun baino zailagoa zen. Berak dio hizkuntza



tabernetan ikasi zuela: “Nik mostradorean egiten nuen lan, eta gutxinaka-gutxinaka, belarria egiten joan zitzaidan bezeroen elkarrizketak entzunez”. Euskara ikasten hasteak asko lagundu ziola esaten du, izan ere, 19 urterekin ezagututako orain bere emaztea den neskaren amak, Santiagoren amaginarrebak, ez zekien gaztelaniaz hitz egiten.

“Hasieran zaila zen, baina elkar ulertzen hasi ginen”, dio berak. Baina hori ez da bere bizipen bakarra tabernekin eta euskararekin. “68-70. urteak ziren, eta tabernetan kartelak ipintzen zituzten: **debekatua abestea hamarretatik**


aurrera”. Berak kontatu digu beti bezero bat etortzen zela kafe batzuk hartzera, eta beti-beti, euskaraz abesten zuela. “Oso burugorria zen, munizipalak etortzean haiekin eztabaidatzen zuen eta kuartelean sartu arren, garai hartan udaletxe azpian zegoen, hurrengo egunean, ateratzean, berriro ere etortzen zen abestera”, esan digu barrezka.

“Nik mostradorean egiten nuen lan, eta gutxinaka-gutxinaka belarria egiten joan zitzaidan bezeroen elkarrizketak entzunez”

Euskararekiko duen ikuspuntua

Oraindik ere euskara bere eguneroko bizitzan barneratzen saiatzen da. Gaur egun badago euskara ez dakien jendea, baina ahal denean euskaraz egiten saiatzen dela aitortu digu: “merkatuan, adibidez, **euskaldunekin euskaraz egiten saiatzen naiz**”. Bere familiarekin ere euskaraz hitz egiten du, emaztearekin gaztelania eta

euskara nahastu arren, euskaraz egiteko saiakera egiten duela esan baitigu. Eta seme eta bilobekin ere, denen ama hizkuntza denez, elkarrizketetan sartzeko saiakera egiten du. “Musikak ikasten laguntzen dit, euskaraz entzuten dut



“Nik lehen ez nuen horrelakorik. Gaur egun, euskaltegiei esker, kanpotarrek errazago dute euskara ikasteko”

gehienetan”, aipatu digu. Hizkuntzaren bilakaerari buruz galdetzerakoan, hainbat arrazoi eman dizkigu euskara gaur egun ikastea askoz ere errazagoa dela azaltzeko. Alde batetik, euskaltegien sorkuntzak hizkuntzaren ikasketa asko erraztu dutela

aipatu digu: “Nik lehen ez nuen horrelakorik. Gaur egun, euskaltegiei esker, kanpotarrek errazago dute euskara ikasteko”. Beste aldetik, **ahoskera** asko hobetu dela, gazteak prestatuago daudela eta orokorrean kalean euskaldun gehiago entzuten direla esan digu.

Argi dago hizkuntza batek pertsona baten bizitzan aldaketa handiak ekar ditzakeela, eta beti dela aberasgarria zoazen lekuko hizkuntza eta kulturaren murgiltzea. Errenteriara etortzea bezalako ekintza txiki baten ondoren, bere familia guztia euskalduna da orain, eta bere bizitza oso desberdina.